



Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie, 2-3º Dpto3
48005 – Bilbao 944153795
www.adarra.org
adarraerakundea@gmail.com



Pedagogi Erakundearen kezkaturik gaude gure erkidegoko ikasleek PISA proban lortutako emaitzekin. Hori dela eta, egun hauetan komunikabideetan hainbat iritzi, interpretazio eta jarrera ezberdin ezagutu ahal izan ditugu. Iritzi horietako askok ia emaitzek beraien beste kezkatzen gaituzte, zeren analisi sakon bat egiten ez bada, hartzen diren neurriek egoera oraindik gehiago okerragotu baitezakete.

Emaitzak aztertzea garrantzitsutzat jo dutenen artean, emaitzen atzerakada askotariko arrazoiaren ondorioa izan daiteke:

- Batzuek ebaluatu diren konpetentzietako puntuazioen beherakada ikasleen aniztasunari leporatzen diote, eta, baita ere, aniztasun horri erantzuteko ahalegin guztia bikaintasunaren kaltetan egiteari. Hala ere, emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeei begiratzen badiegu, **errendimenduaren eta kalitatearen arteko erlazioa** oso sendoa dela ikus dezakegu. Oro har, aurrerapen handia izan duten herrialdeen bereizgarrietako bat puntuaziorik altuenen eta apalenen arteko distantzia murriztea izan da.
- Batzuek emaitzen beherakada familiei leporatzen diete, seme-alaben hezkuntzarekiko duten konpromisoa eta balorazioa oso eskasak direlako. Finlandian, adibidez, egoera berean egon ziren 1985. urtera arte, baina orduan inklusioa legez arautu zuten, eta irakasleei oinarri zientifikoko eta kalitate handiko prestakuntza ematen hasi ziren. Ekimen haien ondorioz emaitzak hobetzen hasi ziren, eta familiak, hobekuntza ikusirik, eskolaren eta irakasleen alde jartzen hasi ziren. Baina hori, agian, ez da zergatia, ondorioa baizik.
- Batzuek emaitzak beste erkidego batzuetako emaitzak baino txarragoak direla diote, baina eskola-uzte goiztiarraren tasak ere askoz txikiagoak direla, eta, beraz, emaitzak, txarragoak. Egia dira biak (emaitza txarragoak, eskola-uzte goiztiarraren tasa baxua), baina horrela izan da duela zenbait urtetatik hona, eta horrek ez du oraindik atzerakada azaltzen.

Oso garrantzitsutzat jotzen dugu arrazoiak aztertzea eta, baita ere, emaitza onak lortzen dituzten herrialdeetan ongi funtzionatzen duena abian jartzea. Europatik hezkuntzari buruz ematen dituzten gomendioak ere bete behar dira:

- Europatik aspalditik ari dira gomendioak ematen irakasmila errepikatzea alde batera uzteko, errepikapenak emaitzak okerragotu egiten dituztelako. Beraz, errepikatzeari buruzko datuak aztertu beharko lirateke, adibidez, asko ote diren, kopurua igo ote den.. eta horren arrazoiak.
- Ebaluazio diagnostikoa eta beste adierazle batzuk kontuan izanik, ikasleen aniztasun handia duten ikastetxe batzuk emaitzak hobetzen ari dira. Zenbait kasutan, aniztasuna handia izan arren eta abiapuntua (emaitzak) oso txarra izan arren, bazterketa-egoera gaituzten hasi dira; beste ikastetxe batzuetan, antzeko ikastetxeekin eta gainerako beste ikastetxeekin konparaturik, oso emaitza onak lortzen ari dira, euren ezaugarriak kontuan izanik espero zitezkeenak baino hobek. Kalitate handiko Hezkuntza Ekintza Arrakastatsuek maiztasun handiz gauzatzen dituzten ikastetxeak dira. Zientifikoki erakutsi da ekintza horiek testuinguru guztietan hobekuntza ekartzen dutela, eta hobekuntza ikastetxe horietako emaitzek berresten dute.

ADARRA Pedagogi Erakundearen aspalditik egin dugu apustu irakasleen prestakuntzak nazioarteko komunitate zientifikokoak finkatutako printzipioak bete ditzen. Horretarako hezkuntza-komunitatearen alfabetatze zientifikoa premia handikotzat jotzen dugu.